# ALDERDI BERRIAK

EAJ PNV

2004ko IRAILA • 1.zenbakia



# IMAZ
## “GEUK ERABAKITZEKO ORDUA”

“EUSKADIREN BURUJABETZAREN ETORKIZUNERAKO BEREBIZIKOA IZANGO DEN EZTABAIDAREN BEZPERETAN OSPATZEN DUGU AURTENGO ALDERDI EGUNA. GURE HERRIAREN ETA HURRENGO BELAUNALDIAREN ETORKIZUNARENTZAT GUZTIZ ERABAKIKORRA IZANGO DEN ERRONKA”

“CELEBRAMOS EL ALDERDI EGUNA EN VÍSPERAS DE UN DEBATE CRUCIAL PARA EL FUTURO DEL AUTOGOBIERNO DE EUSKADI. UNA APUESTA QUE VA A SER DECISIVA PARA EL FUTURO DE NUESTRO PAÍS Y DE TODA UNA GENERACIÓN”

# ALDERDI BERRIAK

## 2004ko IRAILA


ERREDAKZIO TALDEA
EQUIPO DE REDACCIÓN
Luis Aranberri "Amatiño"
Jose Unzueta
Saioa Zubizarreta
Iñaki Bernardo

ARGAZKIAK FOTOGRAFIAS
Ángel Ruiz de Azúa
Roberto Zarrabeitia
Amatiño
Eduardo Charlot
Artxiboa

**ALDERDI BERRIAK** es una revista trimestral publicada por la Dirección de Comunicación del Euzkadi Buru Batzar.

**ALDERDI BERRIAK** Euzkadi Buru Batzarraren Komunikazio Zuzendariak argitara emandako aldizkeri hiruhilabetekaria da.


# AURKIBIDEA
# SUMARIO










ALDIZKARIAREN AURKEZPENA PRESENTACIÓN DE LA REVISTA 01

ALDERDI EGUNA´04: ERABAKIAK HARTZEKO ORDUA
ALDERDI EGUNA´04: HORA DE TOMAR DECISIONES 02
Josu Jon Imaz

ELKARBIZITZARAKO ITUNA UN PACTO PARA LA CONVIVENCIA 05
Juan José Ibarretxe

JARDUERA PLANA 2004-2007. HELBURUAK ETA EKINTZA-ARLOAK
PLAN DE ACTUACIÓN 2004-2007. OBJETIVOS Y LÍNEAS DE ACTUACIÓN 09
Josune Ariztondo

EAJ-REN ARRAKASTA ESTATU BATUETAKO DEMOKRATEN BILTZARREAN
EXITOSA PRESENCIA DEL PNV EN LA CONVENCIÓN DEMÓCRATA 12

EUSKO ALDERDI JELTZALEA EUROPAKO ALDERDI DEMOKRATAREN SORTZAILE
EAJ-PNV FUNDADOR DEL PARTIDO DEMÓCRATA EUROPEO 15

ALDERDI EGUNA´04: KONPROMISU POLITIKOA ETA JAI ABERTZALEA
ALDERDI EGUNA´04: COMPROMISO POLÍTICO Y FIESTA NACIONALISTA 18

# ALDIZKARIaren AURKEZPENA

## AURKEZPENA

Ale berri honekin batera hasiera ematen zaio Alderdi Berriak aldizkariaren ekinaldi berri bati. Aldizkari hau hiru hilabetetik behin argitaratuko da eta EAJ-PNVren bazkideen artean zabalduko.

Lehen ale hau Alderdi Egunaren inguruan kaleratzen da eta euskal politikagintzaren ardatz eta mugarri izango diren gertakizunen bezperetan. Euzkadi Buru Batzarraren presidentea den Josu Jon Imaz eta Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren artikuluak aurrez aurre dugun garai politiko berri horri lotuak dira ezin bestean.

Erronka berri horiek helburu estrategiko eta jarduera-ekintza aproposak eskatzen dizkiote Alderdiaren barne-antolamenduari. Euren berri ematen digu, laburbilduz, Josune Ariztondok, EBBren Idazkariak.

Bestalde, EAJ-PNVren eskuartzea indarrean jarri berri den Europako Alderdi Demokrataren sorreran eta Eusko Alderdi Jeltzalearen zein “Convergència Democrática de Catalunyaren” ordezkarien partaidetza Estatu Batuetako Demokraten Biltzarrean dira, besteak beste, gure Alderdiaren nazioarteko islaren lekuko.

Azkenik, Alderdi Egunaren antolatzaileek hainbat datu eta hausnarketa laburbiltzen dute, ospakizun honen inguruan beti ere gogoangarri direnak.



# PRESENTACIÓN DE LA REVISTA

## PRESENTACIÓN

Se inicia con este número una nueva etapa de la revista Alderdi Berriak. Una publicación que, trimestralmente, se distribuirá entre todos los afiliados de EAJ-PNV.

Este primer ejemplar coincide con el Alderdi Eguna y en vísperas de acontecimientos que, sin duda, marcarán un antes y un después de la política vasca. Los artículos del presidente del EBB Josu Jon Imaz y del lehendakari Juan José Ibarretxe van estrechamente unidos a este nuevo tiempo político.

Los nuevos retos van a exigir de la organización interna del Partido la consolidación de unos objetivos y líneas de actuación que resume Josune Ariztondo, Secretaria del EBB.

La participación como fundador de EAJ-PNV en el recién constituido Partido Demócrata Europeo y la presencia de sendas delegaciones de EAJ-PNV y Convergència Democrática de Catalunya en la Convención Demócrata de los Estados Unidos dan idea de la proyección internacional de nuestro Partido.

Finalmente, los responsables de la Organización del Alderdi Eguna nos ofrecen datos y reflexiones que, año tras año, inspiran la celebración de este día.

# ALDERDI EGUNA´04

## ERABAKIAK HARTZEKO ORDUA



Ibarretxe eta Imaz, iazko Alderdi Egunean

**Euskaldunen belaunaldi batek aspaldian izan ez duen lanik zirraragarriena dugu egiteko. Eta tresna bakarra dugu. Baina tresna hori demokrazian indartsuena da, Euskadin bizi diren pertsona guzti-guztien borondatea alegia. Gaur egun, euskaldun bakoitza inoiz baino garrantzitsuagoa da. Gutako bakoitzak indar guztia du bere eskuetan. Euskaldunok aurten kalera ateratzen bagara, gure indarrean sinesten badugu, nahi dugun etorkizuna eraikitzearen alde egiten badugu, aurrera egingo dugu ziztu bizian.**

**“Tenemos entre manos la tarea más apasionante que ha tenido hace tiempo una generación de vascos. Y sólo tenemos un instrumento. Pero el más fuerte en democracia. La voluntad de todas y cada una de las personas que viven en Euskadi. Hoy un vasco y una vasca es más importante que nunca. Cada uno de nosotros tiene toda la fuerza en su mano. Si los vascos nos movilizamos este año, si creemos en nuestras fuerzas. Si apostamos por construir el futuro que queremos, vamos a salir adelante como un cohete”.**

**ALDERDIKIDE AGUR,**

Orain dela 25 urte, egunotan Aixerrotan (Getxo) Alderdi Eguna egiteko prestatzen ari ginen. Orduan “Bai Estatutuari” leloa aukeratu genuen, herri honek frankismoaren zulotik atera ondoren behar zuen autogobernuaren alde egindako apustuaren adierazgarri. Apustu hori Gernikako Estatutua izan zen. Ordutik hona mende laurdena igaro da. Apustu horrek argiune ugari eta itzalguneren batzuk izan ditu, baina erabakigarria izan da gure identitatea, euskaldunok erabiltzen dugun hizkuntza, euskara, eta gure ongizate ekonomiko eta soziala garatzeko.

Orduan zelai horietan gurekin izan zirenetako asko jada ez daude gure artean. Alderdi Egunean gaur egun lagun eta senitartekoekin elkartzen garen guztiok norbaiten falta sumatzen dugu; horiekin oroitzen naiz bereziki. Alderdia gaur egun dena, eta Euskadi gaur egun dagoen tokia, haiei zor diegu. Aixerrotara euren seme-alabekin joaten zirenetako asko gaur egun aiton-amonak dira, aittitta-amamak; bezperan kanpatzen genuen EGIko gazteetako asko gaur egun gure seme-alabekin joaten garen gurasoak gara, eta gurekin Forondan egongo diren beste asko 1979an artean ez iren jaio ere egin.

ALDERDIKIDE AGUR,

Hace 25 años por estas fechas nos preparábamos para celebrar el Alderdi Eguna en Aixerrota (Getxo). El lema que elegimos en aquella ocasión, “Bai Estatutuari”, representaba la apuesta del Partido por el autogobierno que en aquel momento necesitaba este país que acababa de salir del túnel del franquismo: el Estatuto de Gernika. Ha transcurrido un cuarto de siglo. Aquella apuesta ha tenido muchas luces y algunas sombras, pero ha sido un elemento decisivo en el desarrollo de nuestra identidad, del euskera como lengua de uso común entre los vascos y de nuestro bienestar económico y social.

Muchos de los que nos acompañaban en aquellas campas ya no están con nosotros. Para todos aquellos que cada uno de nosotros echamos de menos cuando nos reunimos con familiares y amigos en el Alderdi Eguna quiero tener un recuerdo muy especial. El Partido es hoy lo que es y Euskadi está hoy donde está gracias a ellos. Gran parte de los que acudían con sus hijos a Aixerrota son hoy aitonas y amonas, aittittas y amamas, muchos de aquellos jóvenes de EGI que acampábamos de víspera somos hoy aitas y amas que acudimos acompañados de nuestros hijos, y otros muchos de los que estarán con nosotros en Foronda ni siquiera habían nacido en 1979.

## NUEVO ESTATUTO POLÍTICO

Hoy, igual que entonces, celebramos el Alderdi Eguna en vísperas de un debate crucial para el futuro del autogobierno de Euskadi. Una apuesta que va a ser decisiva para el futuro de nuestro país y de toda una generación. Este otoño vamos a debatir la propuesta de Nuevo Estatuto Político en el Parlamento y vamos a trabajar para obtener las mayorías para que podamos aprobarla y decidir nuestro futuro. Y si algunos tratan de obstaculizarla, pediremos a la sociedad vasca en las elecciones su voto y la confianza para obtener la mayoría suficiente y llevar adelante este proyecto de futuro. Vamos a decidir.

Es tiempo de soluciones. Necesitamos un autogobierno que nos permita desarrollarnos económicamente. Fortalecer nuestro sistema educativo, desarrollar nuestra Universidad, sin estar al albur de corsés continuos que nos imponen desde Madrid, recurriendo por ejemplo la ley de Universidades. Tener todos los instrumentos económicos en manos de las instituciones vascas. Que no tengamos que llevar 21 años desde el primer esbozo del tren de alta velocidad sin que se haya movido una excavadora, y hasta el ramal a Toledo tenga ya sus obras en marcha. Necesitamos el Nuevo Estatuto político para crear riqueza y generar empleo en el mundo que nos viene.

Es tiempo de estar en todas partes. Necesitamos estar presentes en Europa, donde se toman las decisiones. Para que podamos defender allí nuestros astilleros. O los incentivos a empresas que crean empleo. También queremos tener libertad para impulsar la cooperación y el trabajo en común entre Iparralde, la Comunidad Autónoma Vasca y Navarra. Sin más límite que la voluntad de los ciudadanos de cada uno de los territorios. Por esto también queremos decidir.

Necesitamos establecer un modelo respetuoso de relación entre Euskadi y el Estado. En el que participemos, en el que nos comprometamos, pero siempre desde nuestra libre decisión, y teniendo en nuestra mano la capacidad de definir que instrumentos, qué políticas, qué herramientas tienen que estar en nuestras manos para hacer frente a los problemas. Por esto también queremos la propuesta de Nuevo Estatuto Político.

## TIEMPO DE PAZ

Y es tiempo de paz. Es tiempo de convivencia. Por eso tenemos que conseguir que los vascos podamos decidir nuestro futuro en paz y en libertad. Porque queremos ser los protagonistas de nuestro porvenir. Casi uno de cada dos vascos, el 45%, no pudimos votar el Estatuto, porque no teníamos edad. Casi la mitad de los que estaremos en las campas de Foronda, no pudimos votar en aquella ocasión. Y ahora queremos participar del proyecto de futuro para la próxima generación. En definitiva, vamos a decidir.

## ESTATUTU POLITIKO BERRIA

Gaur, orduan bezala, Alderdi Eguna Euskadien etorkizunerako berebiziko eztabaidaren bezperan ospatu genuen. Oraingoa gure herriaren eta belaunaldi oso baten etorkizunerako apustu erabakigarria izango da. Udazken honetan Legebiltzarrean Estatutu Politiko Berriaren proposamenari buruz eztabaidatuko dugu, eta hori onartzeko eta geure etorkizuna erabaki ahal izateko gehiengoak lortzen saiatuko gara. Eta batzuek proposamena oztopatzen saiatzen badira, euskal gizarteari eskatuko diogu hauteskundeetan euren botoa eta konfiantza eman dezaten, gehiengo nahikoa lortzeko eta etorkizuneko proiektu hau aurrera eramateko. Erabakia hartuko dugu.

Konponbideetarako garaia da. Gure ekonomia garatzeko autogobernua behar dugu. Gure hezkuntza sistema sendotzeko, gure Unibertsitatea garatzeko, Madrilek ezartzen dizkigun muga estuen mendean egon gabe, adibidez Unibertsitateen Legera jo dutenean. Baliabide ekonomiko guztiak euskal Erakundeen esku izateko. Abiadura handiko trenaren lehen zirriborroa egin zenetik 21 urte igaro ondoren hondeamakina bat bera ere mugitu gabe egon behar izan ez dadin, Toledoko trenbide-adarraren obrak jada abian jarri diren bitartean. Estatutu Politiko Berria behar dugu aberastasuna sortzeko eta datorkigun munduan enplegua sortzeko.

Leku guztietan egoteko garaia da. Europan egon behar dugu, hor hartzen baitira erabakiak. Bertan gure ontziolak defendatu ahal izateko. Edo enplegua sortzen duten enpresentzako pizgarriak defendatu ahal izateko. Askatasuna izan nahi dugu Iparraldearen, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroaren artean lankidetza bultzatzeko, muga bakarra lurralde bakoitzeko herritarren borondatea dela. Horregatik ere erabakia hartu nahi dugu.

Euskadiren eta Espainiako Estatuaren artean errespetuzko harremanen eredua ezarri nahi dugu. Eredu horretan parte hartuko dugu, baita konpromisoa hartuko ere, baina beti erabaki askean oinarrituta, eta arazoei aurre egiteko baliatu behar ditugun tresna eta baliabideak zein diren zehazteko ahalmena eskura izanda. Horregatik ere nahi dugu Estatutu Politiko Berriaren proposamena.

## BAKE GARAIA

Bake garaia da. Elkarbizitza garaia. Horregatik euskaldunok geure etorkizuna bakean eta askatasunez erabaki nahi dugu. Geure geroaren protagonista izan nahi dugulako. Euskaldun bitik batek, %45ek, ezin izan genuen Estatutuari buruzko botazioan parte hartu, adin txikikoak ginelako. Forondako zelaietan egongo garenon ia erdiak ezin izan genuen orduan botoa eman. Eta orain datorren belaunaldiarentzako etorkizun proiektu batean parte hartu nahi dugu. Azken batean, erabakia hartuko dugu.

Legebiltzarrean eta gizartean eztabaida sustatuko dugu. Ziurtasuna eta malgutasuna oinarri hartuko ditugu. Ziurtasuna, uste baitugu euskaldunok erabakitzeko dugun eskubidea errespetatzea funtsezkoa dela. Baina malgutasuna ere bai, elkarrizketarekin, hitzekin eta botoekin soilik lan egiteko prest daudenekin adostasuna lortu nahi dugulako. Azken batean, denekin adostasuna lortu nahi dugulako. Gure herrian elkarbizitzarako adostasun gehiena lortu nahiko genuke. Betiere euskal gizartearen borondatearenganako eta Euskadin dagoen aniztasun sozial, kultural eta linguistikoarenganako errespetua eta pertenentzia sentimendu anitzenganako errespetua ere oinarri hartuta. Gure alderdiaren politika hori delako. Eta horretan buru-belarri lan egingo dugu.

Gainera, ziur gaude euskal gizarteak azken urteotan izan duen ongizatea autogobernuaren ondorioa izan dena. Europako batezbestekora heldu gara hainbat arlotan: errenta, enplegua, enpresetako ikerkuntza... Baina aurreranzko jauzia egiteko unea heldu da. Euskadik konparatzen hasi behar du Europako eskualderik aurreratuenekin: Finlandia, Bavaria, Flandes, Baden-Wütenberg,... Eta horretarako autogobernuko esparru berri bat behar dugu, esparru modernoa, herritarrekin lotura duena eta euskal gizartearen babesa duena. Estatutu berria behar dugu, Euskadi Europan aitzindari izateko, bakean bizitzeko, geure aukerei buruzko ziurtasuna izateko, euskal gizon eta emakumeok ilusioz eta konfiantzaz erabaki ahal izateko.

## LAN ZIRRARAGARRIA

Euskaldunen belaunaldi batek aspaldian izan ez duen lanik zirraragarriena dugu egiteko. Eta tresna bakarra dugu. Baina tresna hori demokrazian indartsuena da, Euskadin bizi diren pertsona guzti-guztien borondatea alegia. Gaur egun, euskaldun bakoitza inoiz baino garrantzitsuagoa da. Gutako bakoitzak indar guztia du bere eskuetan. Euskaldunok aurten kalera ateratzen bagara, gure indarrean sinesten badugu, nahi dugun etorkizuna eraikitzearen alde egiten badugu, aurrera egingo dugu ziztu bizian.

Gaur ahalegin bat egin dezazun eskatu nahi dizut. Konpromisoa eskatu nahi dizut. Mobilizazioa behar dugu. Alderdikide bakoitzaren, Euskadiko gizon eta emakume guztiek duten indarra eta garrantzia gurekin izan nahi dugu. Urte garrantzitsua dugu begi-bistan. Zuzen bagaude, –eta hori geuri soilik dagokigu– gure seme-alabek eskertuko digute.

GORA EUSKADI ASKATUTA
*Josu Jon Imaz*
*Presidente del Euzkadi Buru Batzar*

Vamos a promover el debate en el Parlamento y en la sociedad. Lo vamos a hacer desde la convicción y desde la flexibilidad. Desde la convicción porque creemos que es clave que se respete el derecho a decidir de los ciudadanos vascos. Pero desde la flexibilidad porque queremos buscar acuerdos con todos los que estén dispuestos a trabajar sólo con el diálogo, la palabra y el voto. Con todos. Nos gustaría poder alcanzar acuerdos amplios para la convivencia en nuestro país. Desde el respeto a la voluntad de la sociedad vasca y a la pluralidad social, cultural, lingüística y de sentimientos de pertenencia que hay en Euskadi. Porque esa es la cultura de nuestro partido. Y nos vamos a empeñar en ello.

Porque además estamos convencidos de que el bienestar que ha tenido la sociedad vasca estos últimos años tiene mucho que ver con el autogobierno. Hemos alcanzado la media europea en muchas cosas: renta, empleo, investigación en las empresas...Pero es el momento de dar un salto adelante. Euskadi tiene que empezar a compararse con las áreas más avanzadas de Europa: Finlandia, Baviera, Flandes, Baden-Wütenberg,... Y para ello necesitamos un nuevo marco de autogobierno, innovador, moderno, conectado con los ciudadanos y apoyado por la sociedad vasca. Un nuevo Estatuto que nos permita hacer una Euskadi líder en Europa, en paz, convencida de sus posibilidades, con ilusión y con confianza en lo que decidamos ciudadanas y ciudadanos vascos.

## TAREA APASIONANTE

Tenemos entre manos la tarea más apasionante que ha tenido hace tiempo una generación de vascos. Y sólo tenemos un instrumento. Pero el más fuerte en democracia. La voluntad de todas y cada una de las personas que viven en Euskadi. Hoy un vasco o una vasca es más importante que nunca. Cada uno de nosotros tiene toda la fuerza en su mano. Si los vascos nos movilizamos este año, si creemos en nuestras fuerzas, si apostamos por construir el futuro que queremos, vamos a salir adelante como un cohete.

Hoy quiero pedirte esfuerzo. Quiero solicitarte compromiso. Necesitamos movilización. Apelamos a la fuerza e importancia que cada alderdikide tiene. Que cada vasca y vasco tiene. Nos espera un año importante. Si acertamos, y sólo depende de cada uno de nosotros, nuestros hijos e hijas nos lo agradecerán.


Josu Jon Imaz, EBBren buru

# ELKARBIZITZARAKO ITUNA

**"La columna vertebral del proyecto está en la médula del sistema democrático. Es decir, se fundamente en la decisión de los ciudadanos. Y estaremos todos de acuerdo en que en democracia cualquier proyecto puede ser presentado y defendido de forma pacífica y democrática, porque al final será la sociedad vasca, todos y cada uno de los ciudadanos y ciudadanas vascas, los que, con nuestro voto personal e intransferible, podremos ratificar, en último término, el modelo de relación y de convivencia que deseamos, tanto internamente como con el Estado español".**

**"La columna vertebral del proyecto está en la médula del sistema democrático. Es decir, se fundamente en la decisión de los ciudadanos. Y estaremos todos de acuerdo en que en democracia cualquier proyecto puede ser presentado y defendido de forma pacífica y democrática, porque al final será la sociedad vasca, todos y cada uno de los ciudadanos y ciudadanas vascas, los que, con nuestro voto personal e intransferible, podremos ratificar, en último término, el modelo de relación y de convivencia que deseamos, tanto internamente como con el Estado español".**

Ibarretxe, Zenarruzabeitia eta EAJ-PNVren taldekideak Eusko Legebiltzarrean



## ELKARBIZITZARAKO ITUNA

Eusko Jaurlaritzak Espainiako Estatuarekin itun politiko berri bat egiteko proposamena onartu zuen, eta gutxi barru Eusko Legebiltzarrean horri buruzko eztabaida eta botazioa egingo da. Jada denbora luzea igaro da 2001eko maiatzaren 13ko hauteskundeetan EAJ/PNV-EA koalizioa herritarren aurrean ilusioz betetako mezu berri batekin agertu eta herritarren onarpen handia lortu zuenetik.

Euskadiko Estatutu Politiko Berriari buruz hainbeste gauza eta hainbeste gezur esan dira non, batzuetan, ematen baitu benetan denagatik baino gehiago, ez denagatik dugula horren berri. Elkarbizitzarako ituna da, ez da hausturako ituna, ez ezer hausteko, ezta inorekin harremanak hausteko. Aitzitik, herritarrek bakean eta askatasunez hartzen dituzten erabakiak errespetatzeko eskatzen du itunak. Ez du ezer inposatzen, ezta onartu nahi dena irentsarazten, bere artikulu guzti-guztiak eztabaidarako, eta beraz, erreformatzeko zabalik baitaude.

## EZTABAIDA POLITIKOA LEGEBILTZARREAN

Herriaren ordezkari den erakundean, Legebiltzarrean, eztabaida egitea planteatzen du, ez du eztabaida mediatiko edo alderdikoirik planteatzen, ezta hauteskundeei begira ere. Datozen hogeita bost urteetan euskaldun guztientzako autogobernuko esparrua onartzeko adostasun nahikoa lortzea du helburu, eta hori ez da inolako hausturarako proposamena. Espainiako Estatuarekin elkarbizitza adeitsua lortzeko irekia eta malgua da, ez da sortu

muga edo harresirik eraikitzeko, hain zuzen ere Europan horrelakorik ez baitago. Europa eraikitzeko proposamena da, Euskadi bezalako herri eta nazioek ere Europa eraikitzen dugulako.

Ituna alderdi nazionalista biren eta alderdi federalista baten arteko akordioaren emaitza da. Akordio horrek ia-ia herritarren erdia biltzen du –ordezkarien ehuneko 47,7-, eta Legebiltzarrean ez da horri buruzko alternatibarik aurkeztu. Gainontzeko alderdien artean ez dago adostasunik, ezta handiagorik ere, euskaldunon autogobernuari buruz.

Itunaren proposamenak zilegitasun juridiko osoa du. Gobernuak Eusko Legebiltzarrean aurkeztu du legearen arabera, eta eztabaidari Ezetz esan diotenek Konstituzio Auzitegiarekin ere topo egin zuten, planteatutako eztabaida erabat zilegia dela ezarri baitzuen hark. Azken batean, zilegitasun sozial osoa du, euskal gizartearen gehiengoak eskatzen duen aldaketari jaramon egiten baitio, elkarren arteko errespetuan eta geure etorkizuna erabakitzeko askatasunean oinarrituta. Beraz, ez da amesgaizto baten edo uneko apeta baten ondorioa.

## EUSKAL GIZARTEAREN GEHIENGOAREN BORONDATEA

Euskadiren eta Espainiako Estatuaren arteko harreman adeitsua proposatzen da, eta Konstituzioaren interpretazio ireki eta malguaren ondorioa da, lehenengo xedapen gehigarriaren eta bigarren xedapen indargabetzailearen babespean, eta Gernikako Estatutuaren xedapen gehigarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz. Legezko funts eta oinarria du. Borondate politikoa badago, ez dago gainditu ezinezko eragozpen juridikorik. Ez da egia legezko testuek Itun politiko berria erdiestea eragozten dutenik. Ez dezagun geure burua babestu hesi juridikoen atzean. Euskal gizartearen gehiengoaren borondatea ordenamendu juridikoan sartu ahal da, eta sartu behar da. Arauek herritarren eta herrien borondate demokratikoari jaramon egin behar diote, zuzenbidea gizarteek elkarbizitza hobetzeko baliatzen duten tresna baita.

Aurkeztutako Proposamena ez da EAJ-ren proiektu politikoa, ezta Eusko Alkartasunarena, ezta Ezker Batuarena, eta ez da alderdi horien estatutuen edo oinarri ideologikoen ordezkoa. Ez da gehienezko mugetara jotzeko planteamendua, zentraltasunezkoa baizik. Eusko Jaurlaritzaren proposamen instituzionala da, horrek duen garratzi handia eta guzti, eta beraz, horrekin ez da ixten eztabaida politikoa, ezta soziala ere. Konponbidearen zati garrantzitsua da, baina ez da konponbide osoa. Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdi politiko guztiek, baita Gobernu honetako kide garen alderdiok ere, Legebiltzarreko eztabaidan gogoeta eta ekarpenak aurkezteko zilegitasuna dugu. Batzuek proposamenak omen dituzte (PSOE), baina hedabideetako orrialdeetan soilik agertzen dira horiek. Hilabete luzeak eztabaida eta ika-mika artean eman ondoen, Legebiltzarrak Gobernuari emandako agindua bete dugu; PP-k eta PSOE-k, aldiz, denari ezetz esaten baizik ez dakite. Eta Batasuna bion aliatu hobezina izan da eztabaidak, edozein

## UN PACTO PARA LA CONVIVENCIA

El Gobierno Vasco aprobó una propuesta de nuevo pacto político con el Estado español que está a punto de ser votada y debatida en el Parlamento Vasco. Ha pasado ya mucho tiempo desde que en las elecciones del 13 de mayo del 2001 la coalición EAJ/PNV-EA nos presentamos ante los ciudadanos con un mensaje nuevo e ilusionante que logró una amplia aceptación ciudadana.

Del Nuevo Estatuto Político Vasco se han dicho tantas cosas y tantas mentiras que, a veces, se tiene la impresión de que se conoce más por lo que no es que por lo que realmente representa. Es un pacto para convivir y no plantea un pacto para romper nada ni para romper con nadie. Reclama respeto a las decisiones democráticas que en paz y libertad tomen los ciudadanos y no plantea imposición ni trágala alguno, porque todos y cada uno de sus artículos están abiertos al debate y, por tanto, a su posible reforma.

## DEBATE POLÍTICO EN EL PARLAMENTO

Plantea un debate político en la institución que representa al pueblo, el Parlamento Vasco, y no plantea ningún debate mediático, partidista o electoralista. Aspira a lograr el consenso suficiente para aprobar el marco de autogobierno para todos los vascos en los próximos veinticinco años, y no es ninguna propuesta rupturista. Es abierta y flexible para lograr una convivencia amable con el Estado español y no está concebida para levantar fronteras ni murallas, porque en Europa sencillamente no existen. Es una propuesta para construir Europa, porque también países y naciones como Euskadi construimos Europa.

Es el fruto de un acuerdo entre tres partidos: dos nacionalistas y un tercero federalista. Un acuerdo que representa a prácticamente la mitad de los ciudadanos –el 47,7 por ciento de la representación- y que no tiene alternativa alguna presentada en el Parlamento. No se conoce otro consenso mayor o superior entre el resto de partidos sobre el autogobierno de los vascos.

La propuesta de pacto tiene toda la legitimidad jurídica. Ha sido presentada por el Gobierno, de forma legal, en el Parlamento Vasco y quienes han dicho No al debate se toparon hasta con el Tribunal Constitucional, que estableció que el debate que plantea es plenamente legítimo.  En definitiva, tiene toda la legitimidad social, porque responde a la exigencia de cambio de una amplia mayoría de la sociedad vasca,  sobre la base del respeto mutuo y de la libertad para decidir nuestro propio futuro. No es por tanto fruto de un mal sueño de verano ni un capricho pasajero.

## VOLUNTAD MAYORITARIA DE LA SOCIEDAD VASCA

Lo que propone es una relación amable de Euskadi con el Estado español que responde a una interpretación abierta y flexible de la Constitución, al amparo de su disposición adicional primera y de su disposición derogatoria segunda, y de conformidad con lo previsto en la disposición adicional del Estatuto de Gernika. Tiene fundamento y base legal. No hay dificultades jurídicas que no puedan superarse si existe voluntad política. No es cierto que los textos legales impidan alcanzar un nuevo Pacto político. No nos escudemos en barreras jurídicas. La voluntad mayoritaria de la sociedad vasca puede y debe ser incorporada al ordenamiento jurídico. Las normas deben responder a la voluntad democrática de la ciudadanía y de los pueblos, porque el derecho es un instrumento al servicio de las sociedades para mejorar la convivencia.

La Propuesta presentada, no es el proyecto político del PNV ni es el proyecto de Eusko Alkartasuna, ni el de Izquierda Unida, ni sustituye sus estatutos ni sus presupuesto ideológicos. No es un planteamiento de máximos, sino que representa la centralidad. Es la propuesta institucional del Gobierno Vasco, con toda la importancia que esto significa y, por tanto, no agota el debate político ni el debate social. Es una parte importante de la solución, pero no es toda la solución. Todos los partidos políticos con representación parlamentaria, incluidos los partidos que formamos parte de este Gobierno, están legitimados para plantear sus propias consideraciones y aportaciones a lo largo del debate parlamentario. Las propuestas que algunos dicen tener (PSOE) están únicamente en las páginas de los medios de comunicación.

Hemos cumplido con el mandato que el Parlamento le hizo al Gobierno para presentar una reforma estatutaria tras meses y meses de debates y discusiones, mientras PP y PSOE sólo sabían decir No a todo. Y Batasuna era el aliado necesario de ambos para impedir y bloquear el debate, cualquier debate. Pero, aún con todo, no lo han conseguido. Los que se han pasado la Legislatura diciendo No hoy es el día que hablan de propuestas, aunque sólo lo hagan en los medios de comunicación.

## DECISIÓN DE LOS CIUDADANOS

La columna vertebral del proyecto está en la médula del sistema democrático. Es decir, se fundamente en la decisión de los ciudadanos. Y estaremos todos de acuerdo en que en democracia cualquier proyecto puede ser presentado y defendido de forma pacífica y democrática, porque al final será la sociedad vasca, todos y cada uno de los ciudadanos y ciudadanas vascas, los que, con nuestro voto personal e intransferible, podremos ratificar, en último término, el modelo de relación y de convivencia que deseamos, tanto internamente como con el Estado español.

No es verdad que Europa impida un acuerdo sobre la reforma del autogobierno refrendado por la sociedad. La normativa europea

izan direla ere, oztopatzeko. Hala eta guztiz ere, ez dute lortu. Legealdi osoa Ezetz esaten eman dutenak orain hasi dira proposamenez hitz egiten, baina hedabideetan soilik.

## HERRITARREN ERABAKIA

Proiektuaren bizkarrezurra sistema demokratikoaren muinean dago. Hau da, herritarren erabakian oinarritzen da. Eta denok ados gaude gauza batean, demokrazian edozein proiektu modu baketsu eta demokratikoan aurkez daitekeela, alegia. Izan ere, azkenean euskal gizarteak, euskal gizon eta emakume guztiok gure boto pertsonal eta eskualdaezinarekin berretsiko dugu zein elkarbizitza eredu nahi dugun, bai geure artean, bai Espainiako Estatuarekin elkarrekin bizitzeko.

Europak ez du eragotziko autogobernuaren erreformari buruz gizarteak berretsi duen erabaki bat. Europako araudiak ez du inola ere eragozten edo debekatzen Euskadiren eta Espainiako Estatuaren arteko barneko harremana elkartze askean eta subiranotasun konpartituan oinarritzea. Halaber, ez ditu eragozten lotura kultural, historiko eta ekonomikoak dituzten eta Estatu ezberdinetakoak diren Eskualdeen eta lurraldeen arteko mugez gaindiko lankidetza-harremanak; are gehiago, sustatu egiten ditu. Horren adibidea da Maragall-en Gobernuak euroeskualdeari buruz egin dituen proposamenak. Maragall-ek Euskadin dituen alderdikideek, aldiz, nahiago dute Europa aitzakia gisa erabili.

Proposamenak ez dakar orain erreformatu nahi den Espainiako Estatuaren ereduari buruzko aurreiritzirik edo eredu horren bilakaerari buruzko baldintzarik. Proposamena Estatu konposatu, nazio anitzeko eta asimetriko baten etorkizuneko bilakaerarekin bateragarria da, eta ez dagokigu guri Estatuaren ereduari buruz edo beste hainbat Herrik eredu horri eman nahi dioten joerari buruz aldez aurretiko iritzirik ematea. Ez dugu proposamen hau planteatu beste herriei geure bidetik joatera behartzeko, ezta haiei beren bidetik joatea eragozteko. Proposamen hau egin dugu elkarbizitzako formula bat aurkitu nahi dugulako, euskal gizartearen borondateari jaramon egiteko eta Espainiako Estatuan geure nortasun nazionala errespetatzen dela bermatzeko.

## HERRIEN ESKUBIDEA

Proposamenak Euskadiko Erkidegoa osatzen duten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurraldeei soil-soilik dagokie, eta Espainiako Estatutuarekiko harremanetarako Itun Politiko berri baten barnean hartzen ditu. Ikuspuntu horretatik, proposamenean argi adierazten da Iparraldeko eta Nafarroako Foru Komunitateko herritarrenganako errespetua, izan nahi duten barneko nahi kanpoko harremanen esparrua erabakitzeko libreak baitira. Zalantzarik gabe, ekimen horrek norberaren erabaki demokratikoak errespetatzen ditu, Espainiako Konstituzioan Nafarroa Euskadin “sartzeko” egindako aurreikuspenek baino gehiago.

Elkarbizitzaren eta demokraziaren oinarrietako bat herriek euren etorkizunari buruz erabakitzeko duten eskubidea da, eta nazioarteko hainbat hitzarmenetan berariaz adierazten da, besteak beste Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, Nazio Batuen Erakundearen Gutun Eratzailean eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean, baita Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean ere; horiek guztiak Espainiako Erresumak berretsi ditu. Eusko Legebiltzarrak eskubide hori gehiengo osoz aldarrikatu zuen 1990ko otsailaren 15ean.

Batzuetan zaila da norberak zer ordezkatzen edo defendatzen duen esatea, hainbeste gezurrez inguratuta eginda. Erabat zilegi da batzuk ados ez egotea. Baina ados ez dagoenak ere bere alternatiba zein den esan behar digu.

*JUAN JOSE IBARRETXE*



Ibarretxe en el ALDERDI EGUNA 2003

en ningún caso impide o prohíbe un modelo de relación interno entre Euskadi y el Estado español basado en la libre asociación y en la soberanía compartida. Tampoco impide, sino que alienta e impulsa, las relaciones de cooperación transfronteriza entre regiones y territorios, con lazos culturales, históricos o económicos comunes, pertenecientes a diferentes Estados. Un ejemplo de ello lo podemos encontrar en las propuestas de eurorregión que hace el Gobierno Maragall. Pero sus compañeros vascos prefieren seguir utilizando como subterfugio a Europa.

La propuesta no prejuzga ni condiciona el desarrollo del actual modelo del Estado español, que ahora se plantea reformar. Es una Propuesta compatible con el desarrollo futuro de un Estado compuesto, plurinacional y asimétrico, y no nos corresponde prejuzgar el desarrollo del modelo de Estado ni la tendencia que legítimamente le quieran imprimir otros Pueblos. No planteamos esta Propuesta para obligar a los demás a seguir nuestro camino, ni para impedirles que sigan el suyo. La hacemos porque deseamos encontrar una fórmula de convivencia que nos permita dar respuesta a la voluntad de la sociedad vasca y garantizar el respeto a nuestra identidad nacional en el seno del Estado español.

## DERECHO DE LOS PUEBLOS

La Propuesta compromete, única y exclusivamente, a la Comunidad de Euskadi, integrada por los Territorios de Araba, Bizkaia y Guipúzcoa, en un nuevo Pacto Político de relación con el Estado español. Desde esta perspectiva, en la propuesta se manifiesta claramente el respeto a los ciudadanos y ciudadanas de los territorios de Iparralde y a los de la Comunidad Foral de Navarra para decidir libremente el marco de relaciones internas y externas que desean tener. Iniciativa, sin duda, más respetuosa con las decisiones democráticas de cada cual que la previsión de "incorporación" que hace la Constitución española.
El derecho de los pueblos a decidir su propio futuro es uno de los fundamentos básicos de la convivencia y de la democracia, y está recogido expresamente, entre otros convenios internacionales, en la Declaración Universal de los Derechos Humanos, en la Carta Constitutiva de la Organización de las Naciones Unidas y en el Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales, así como en el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos, ratificados por el Reino de España. El Parlamento de Euskadi proclamó por mayoría absoluta este derecho el 15 de febrero de 1990.
Es complicado y difícil, en ocasiones, decir qué es lo que uno representa y defiende ante un mar de falsedades. Es perfectamente legítimo que haya quien no esté de acuerdo. Pero quien discrepe tiene también la obligación de decirnos cuál es su alternativa.

*JUAN JOSE IBARRETXE*

# UN PACTO PARA LA CONVIVENCIA

# JARDUERA PLANA 2004-2007

# HELBURUAK ETA EKINTZA-ARLOAK

**EBBaren eta Herrialde Kontseiluen lan koordinatua, gure oinarriak proposamenaren funtsezko edukiei buruzko hedapenean eta eztabaida sozialean inplikatzeko.Alderdiaren eta gobernuko bazkideen arteko lankidetza estrategikoa. Hiru alderdiko koalizioa gainontzeko alderdi politikoekin adostasun handiagoa lortzeko abala eta ardatza da.CiU, BNG eta EAJ-k osatzen duten antzinako Galeuzca-ren sendotze politikoa, Espainiako Estatuan nazioen aniztasunari buruzko arrazoibide eta jarduera bultzatzeko funtsezko erreferentzia diren aldetik. Ez da ahaztu behar Galeuzca-k beste talde politiko batzuekiko harremanak bideratzeko indar handia izan dezakeela, Euskadi, Katalunia eta Galiziaren nahiz Europako beste hainbat herri eta nazioen nazio-interesen alde egiteko.Euzkadi Buru Batzar honen agintaldiaren lau urteetan lehentasunezko lana izango da Alderdia Euskadiko Estatutu Politiko Berrira heltzeko katalizatzaile eta bultzatzaile sozial bihurtzea, belaunaldi oso batentzako elkarbizitzako proiektua den aldetik.**

**"El trabajo coordinado entre el EBB y los Consejos Territoriales, para lograr la implicación de nuestras bases en la difusión y el debate social; la colaboración estratégica del Partido con sus socios de gobierno, como eje desde donde ensanchar el consenso con el resto de las formaciones políticas; y la consolidación política de Galeusca para conformar, junto con CiU y BNG, el discurso y la práctica de la plurinacionalidad del Estado español, son las tres herramientas estratégicas contempladas por el Euzkadi Buru Batzar para convertir al Partido en un gran catalizador e impulsor social que permita alcanzar el Nuevo Estatuto Político para Euskadi como proyecto de Convivencia para toda una generación".**

EAJ-k azken mende laurdeneko garrantzi politiko handieneko apustua egin du: Euskadiko Estatutu Politiko Berrirako proposamena, 2003ko urrian Lehendakariak Eusko Legebiltzarrean aurkeztutakoa.

Lehendakariaren proposamena 2004ko Aberri Batzarrean onartutako Txosten Politikoaren gunea izan zen, eta proposamen horren oinarriak Euzkadi Buru Batzarraren jardueraren ardatza izango dira 2004-2007 aldian. Proposamenak Nafarroa eta Iparralderentzat ere balio duela azpimarratu nahi dugu, bai metodologia eta prozedurazko oinarriengatik, bai Hegoalde eta

Euzkadi Buru Batzarraren astelehenerokо bilera



EAJ-PNV ha llevado a cabo la apuesta de mayor calado del último cuarto de siglo en la política vasca: la Propuesta de Nuevo Estatuto Político de Euskadi, presentada por el Lehendakari en el Parlamento Vasco en octubre de 2003.

Las bases de la propuesta del Lehendakari, elemento central de la Ponencia Política aprobada en la Asamblea Nacional de 2004, constituirán los ejes de la actividad del Euzkadi Buru Batzar en el período 2004-2007. Subrayamos la validez de la Propuesta para Nafarroa e Iparralde, tanto por sus bases metodológicas y procedimentales (la ciudadanía de cada ámbito jurídico-político como sujeto de decisión; impulso al euskera y a los signos de identidad cultural; ...), como por su apuesta explícita a favor de la relaciones interinstitucionales de Hegoalde-Iparralde sin más límite que la voluntad de las mayorías.

Por ello, el impulso social y político a la Propuesta del Lehendakari centrará nuestra tarea como Ejecutiva Nacional. Son herramientas estratégicas para el logro de este objetivo:

iparraldeko erakundeen arteko harremanen alde egiteagatik, muga bakarra gehiengoen borondatea dela.

Horregatik, Lehendakariaren Proposamenari bultzada soziala eta politikoa ematea Aberri Batzar honen lanaren gunea izango da. Helburu hori lortzeko tresna estrategikoak hauek dira:

EBBaren eta Herrialde Kontseiluen lan koordinatua, gure oinarriak proposamenaren funtsezko edukiei buruzko hedapenean eta eztabaida sozialean inplikatzeko.

Alderdiaren eta gobernuko bazkideen arteko lankidetza estrategikoa. Hiru alderdiko koalizioa gainontzeko alderdi politikoekin adostasun handiagoa lortzeko abala eta ardatza da.

CiU, BNG eta EAJ-k osatzen duten Galeuzca-ren sendotze politikoa, Espainiako Estatuan nazioen aniztasunari buruzko arrazoibide eta jarduera bultzatzeko funtsezko erreferentzia diren aldetik.

Euzkadi Buru Batzar honen agintaldiaren lau urteetan lehentasunezko lana izango da Alderdia Euskadiko Estatutu Politiko Berrira heltzeko katalizatzaile eta bultzatzaile sozial bihurtzea, belaunaldi oso batentzako elkarbizitzako proiektua den aldetik.

# I. HELBURU ESTRATEGIKOAK

### 1. Bakea eraikitzea eta giza eskubideak defendatzea

Bakea eta giza eskubideak lehentasuna dira. Bakearen bidean elkarrizketa eta adiskidetzako prozesuak bultzatuko ditugu.

### 2.- Euskal nazioa eraikitzea.

EAEn, Proposamenari eta hiru alderdiko koalizioa sendotuko duten ekimenei babes politiko eta soziala ematea, Euskadiko Estatutu Politiko Berrira heltzeko, belaunaldi batentzako elkarbizitzako proiektua den aldetik. Nafarroan, NaBai proiektu eta elkartasun gisa garatzea. Eta, Iparraldean, Erkidegoaren aintzatespenera apurka heltzea lortuko duen sare sozial eta politikoa taxutzeko lan egitea.

### 3.- Eraikuntza soziala

Nazioaren eraikuntzan herritarren ongizatearekin etengabeko konpromisoa hartu behar da.. Batetik, hezkuntzarekin, ikerkuntzaren eta garapen teknologikoarekin konpromiso sakonagoa izatea, horiek guztiek Herriaren indar industrial eta ekonomikoa garapen ekonomiko jasangarri eta solidarioaren bidez bermatzen baitute. Bestetik, konpromisoa hartzea integrazioko, garapeneko eta justizia sozialeko eredu baten alde, premiarik handienak dituztenekiko elkartasuneko eredu baten alde, etxebizitzaren alde eta familia babesteko politiken alde.

El trabajo coordinado entre el EBB y los Consejos Territoriales para lograr la implicación de nuestras bases en la difusión y el debate social sobre los contenidos fundamentales de la propuesta.

La colaboración estratégica del Partido con sus socios de gobierno. El tripartito es el aval, es el eje desde el que hemos de ir ensanchando el consenso con el resto de las formaciones políticas.
La consolidación política de la antigua Galeusca, conformada por CiU, BNG y EAJ-PNV, como referencia fundamental para impulsar el discurso y la práctica de la plurinacionalidad del Estado español.

